

3. BALKOIEK ETA LEIHOEN EDERTZE LEHIAKETA

Ermuko Udalak Balkoien eta leihoen edertze lehiaketan parte hartzera gonbidatzen ditu herritarrek.

HELBURUA

Lehiaketa honen helburua da, herritarren parte hartzearen bidez, Ermuko ingurumen kalitatea eta irudia hobetzea. Landareen eta loreen garrantzia nabarmendu nahi da hiriko ingurune atseginagoa eta ederragoa lortze aldera eta, bide batez, ohitura on hori herritarren artean zabaltzea.

PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan Ermuko hirigunean bizi diren herritar guztiek parte har dezakete, aldez aurretik izena eman badute.

FURGOBARATZA

- Maiatzaren 28an, Orbe Kardinal Plazan izango da "FurgoBaratzan" (10:00-13:00). Etxebizitza bakoitzeko lore bakarra banatuko da, hauek amaitu arte. Inprimakia beteta ematea derrigorrezkoa izango da, jasotzen duenak bere NANA erakutsi beharko du.
- FurgoBaratzan ezin izango da izen eman.

IZEN-EMATEA

Izena emateko bi aukera daude:

- Maiatzak 28tik ekainak 18ra arte, biak barne, Abiapuntuan. Izen-ematea formalizatzen den momentuan emango zaio parte hartzaileari balkoi edo leihoan jarri beharko duen bereizgarria. Derrigorra da bereizgarria leku ikusgai baten kokatzea epaimahaiak ikusi ahal izateko.
- Maiatzaren 28tik ekainaren 18ra bitartean (biak barne) tconde@udalermua.eus helbidera "balkoiak" izenpean mezu bat bidaliz. Kasu honetan, bereizgarria Abiapuntu Arreta Bulegoan jaso behar da. Mezuak ondoko datuak bildu behar ditu:
 - Izen eta abizenak
 - Helbidea
 - Telefonoa
 - Helbide elektronikoa

Kategoria bakar bat ezarriko da: balkoi edo leiho hoberena.

OINARRIAK

- Balkoi edo leiho ederrena sarituko da.
- Landare edo lore biziak erabiliko dira edertzeko.
- Kaletik ikusteko aukera izan beharko du epaimahaiak. Epaimahaia ez da etxeetara igoko.
- Parte-hartzaileek edertzeko askatasuna izango dute, beti ere ingurua errespetatuz (auzokideak, kalea...) eta segurtasuna bermatuz. Debekatua dago loreontzi eta mazetak hauen erorketa saihesten duen babes-elementurik gabe kokatzea. Bestalde, ezingo dira landareak apaindura ezerezten duten lata edo ontzietan kokatu. Landareak ureztatzen direnean kalera urik ez isurtzeko moduan egingo da.
- Pertsona batek ezin izango ditu bi edizio jarraian baino gehiago irabazi.
- Balkoi edo leiho parte-hartzailea kaletik ikusteko modukoa izango da eta bereizgarria ikusgarri eduki beharko du epaimahaiak identifika dezan uztailaren 1etik 16ra arte. Baldintza hauek betetzen ez badira ez da balkoi edo leihoa baloratuko eta ondorioz, deskalifikatu egingo da.
- Pertsona berak ezin izango ditu bi edizio baino gehiago irabazi.

EPAIMAHAIA

-Epaimahaia lorategigintzan edo hiri-edertze lanetan aditu batek eta udal ordezkari batek osatuko dute.

- Epaimahaiak hautaketa eztabaidak eta bozkaketak ateak itxitako bileretan egingo ditu.
- Epaimahaiak balkoi eta leihoen balorazioa uztaileko lehen hamabostaldian egingo du.
- Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da.

BALORAZIOA

Epaimahai kalifikatzaileak ondoko irizpideetan oinarrituko du bere puntuazioa:

- Kanpoaldetik ikusgarria izatea.
- Konposizioaren originaltasuna eta sormena.
- Apainketaren kalitatea.
- Apainketaren harmonia eta diseinua.
- Konplexutasuna.

SARIAK

2 sari mota egongo dira:

-**Herrian:** lehen saria 200 euroko bonu bat izango da eta bigarrena 150 euroko bonu bat, biak Ermuako Merkataritza Guneako kide diren saltokietan erabiltzeko.

-**Eskualdean:** 250 euroko bonua, irabazleak bere herriko saltokietan erabil dezan.

Epaimahaiaren erabakiaren adierazpena eta sari banaketa **uztailean** egingo dira. Parte-hartzaileei aurrez jakinaraziko zaie noiz eta non egingo den sari banaketa.

Eskualde mailako saria eta herri mailako saria bateraezinak dira.

KONPROMISOA

Udala telefonoz edota email bitartez harremanetan jarriko da irabazleekin

Parte-hartze hutsagatik, partaideak udalari bere identitatea (izena eta bi abizenak) eta saritutako balkoi edo leihoaren argazkia argitaratzeko baimena ematen dio, lehiaketaren emaitzak publiko orokorrari jakinarazteko udal webgunearen (www.ermua.es) eta prentsa ohar edo antzekoen bitartez.

Parte-hartzaileek balkoiei eta leihoei argazkiak ateratzeko eta zabaltzeko baimena emango dute.

Izena emateak berekin dakar lehiaketaren oinarriak eta epaimahaikideen erabakia onartzea.

Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.